

2021/04/19

ENJOY ENGLISH

INGELESA LANTZEKO UDALEKU IREKIA

Laudio Ikastolak “Enjoy English” ingelesezko udaleku irekia eskainiko du aurten ekainaren 21etik uztailearen 9ra.

Ikastolen Elkaratearen Zirimola aisialdirako ekimenak garatutako proposamena da eta 5 eta 11 urte bitarteko ikasleei, 2009 eta 2015 urteen artean jaiotakoei, zuzenduta dago.

Ikastolen Elkarateak sortutako ikasmateriala erabiliko da. Proiektuetan oinarritutako metodologia erabiliz, partaideek taldean eta modu ludiko batean aste bakoitzean gai bat landuko dute. Helburuak, besteak beste, ingelesezko komunikaziorako gaitasunak lantzea jolas dinamikaren bitartez edo ingelesa bizitzako egoera errealetan erabiltzea izango dira.

Taldeak gehienez 12 lagunekoak izango dira. Nolanahi ere, une horretan indarrean dauden protokoloen arabera.

Taldeak adin tartean arabera antolatuko dira eta toki kopurua baino izen emate gehiago suertatuz gero, izen emate datak ezarriko du parte hartzeko ordena.

KUOTA ETA ANTOLAKETA

3 asteko ikastaroa izango da, ekainaren 21etik uztailearen 9a bitartekoa, Ikastolan bertan 09:30etik 13:30era gauzatuko dena.

Programa hiru astez luzatuko da:

1. astea 06/21-06/25
2. astea 06/28-07/02
3. astea 07/05-07/09

1, 2 edo 3 astez parte hartzeko aukera izango da: aste bateko kuota 86€, 2 aste 162€ eta 3 aste 238€. Kuotak Ikastolako errezioboaren bidez ordainduko dira 3 zatitan, maiatza, ekaina eta uztaileko errezioboetan.

Beharrezko gutxieneko kopurua interesatuta egonez gero, ordutegi osagarria eskainiko da.



niko da 8:00etatik 9:30era, asteko 14 euroko kuota gehigarriarekin.

BAJAK

Izen emate epea itxi baino lehenago jakinarazitako bajek ez dute ezer ordainduko. Baja beranduago gertatuz gero baina udalekua oraindik hasi gabe balego, mediku justifikantea aurkeztu beharko da %50a ordaintzeko, gainerako kasuetan kuota osoa kobratuko da.

Izena ematean ikasle bakoitzak parte hartuko duen asteak zehaztu beharko ditu.

Eskaerak maiatzaren 7ra arte jasoko dira.